Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

# *Mari Jose Elizalde Azkue*

*Zumaia, Gipuzkoa (1958)*



Aurkibidea

# Biografia



Mari Jose Elizalde Zumaian jaio zen 1958an. Zumaian pasa zituen bere haurtzaroa eta gaztaroa. Txitxarro dantzalekuan ezagutu zuen bere gizona izango zena. Ezkondu eta Eibarrera joan zen bizitzera, Mandiola bailarako San Pedro Akondia baserrira. Bi seme ditu. Baserriari eta hari lotuta dagoen San Pedro Akondia ermitari buruz dakien guztia, senarrarengandik eta haren familiarengandik ikasitakoa da. Ermitaren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion, hain zuzen ere, elkarrizketa, *Eibarko ermitak* proiektuaren barruan.

# Zintak

## ZUM-108

- **Proiektua**: Eibarko ermitak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Data**: 2020-09-04
- **Iraupena**: 58 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar

# Pasarteak

## 1. San Pedro Akondiara ezkondua

- **Erref**: ZUM-108/001
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

**Laburpena**:
Zumaian jaioa. Senarra Txitxarro dantzalekuan ezagutu zuen eta Eibarko San Pedro Akondia baserrira ezkondu zen. San Pedro ermitako serora da.

## 2. Lehen San Adrian ermita, orain San Pedro

- **Erref**: ZUM-108/002
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:01:26. **Bukatu**: 00:02:37

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

**Laburpena**:
Akondia baserriaren ondoan dago San Pedro ermita. Lehen San Adrian deitzen zitzaion, baina, gerra garaian, ermita suntsitu eta berreraikitzerakoan, Arratetik San Pedroren irudia ekarri zen.

## 3. San Pedro eguna

- **Erref**: ZUM-108/003
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:02:37. **Bukatu**: 00:03:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena**:
Mandiola bailaran dago euren baserria. San Pedro egunaren ospakizunean, baserritarrak eta kaletarrak biltzen dira. Mari Josek hamaiketakoa ateratzen du mezaren ostean. San Pedro eguna astean zehar tokatzen bada, hurrengo igandean ospatzen da.

## 4. San Pedro ermitaren jabea: eliza

- **Erref**: ZUM-108/004
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:03:40. **Bukatu**: 00:05:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

**Laburpena**:
San Pedro ermitaren jabea eliza da. Senarra hil aurretik beraiek mantentzen zuten ermita. Ostera, elizari eskatu diote teilatua konpontzea, baina oraindik ez dute egin. Barruan fresko dago urte osoan eta uztak gordetzeko erabili izan dute.

## 5. San Pedro ermita, gerran fronteko trintxera

- **Erref**: ZUM-108/005
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:05:31. **Bukatu**: 00:08:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena**:
San Pedro ermita XVI. mendekoa da eta XIX. mendean konpondu zeneko idatzi bat dago horman. Gerra garaian, teilatua jausi egin zen eta paretak geratu ziren zutik. Ermita trintxera bezala erabili zen, frontea bertan

zegoelako. Horman zuloak ikus daitezke. Noizean behin balak azaltzen dira baratzean eta baita bonbak ere. Ertzaintza joaten da bonbak leherraraztera.

## 6. San Pedro ermitako konponketa-lanak

- **Erref**: ZUM-108/006
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:08:45. **Bukatu**: 00:09:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

**Laburpena**:
XIX. mende bukaeran berritu zen San Pedro ermita, ustez haize bolada batek eragindako kalteengatik. 2017an izandako elurte gogor batek teilak mugitu zituen eta ermitara ura sartzen da.

## 7. Akondia baserria, San Pedro ermitaren serora etxea

- **Erref**: ZUM-108/007
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:09:42. **Bukatu**: 00:11:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Baserria

**Laburpena**:
Akondia baserria, serora-etxe bezala eraiki zen. Txikia zen, baina urteekin handitzen joan da eta jatorrizko etxearen planta, paretetan ikus daiteke.

## 8. Akondiako "konjurua"

- **Erref**: ZUM-108/008
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:11:00. **Bukatu**: 00:13:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

**Laburpena**:
San Pedro eguneko ospakizunean, meza, hamaiketakoa eta batzuetan soinu-jotzailea egoten dira. Apaizak, "Akondiako konjurua" egiten du, bailarako baserri eta zelaiak bedeinkatuz. Eguraldi txarra saihesteko erritua da.

## 9. San Pedro Akondia ermitako apaizak

- **Erref**: ZUM-108/010
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:13:18. **Bukatu**: 00:14:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

**Laburpena**:
San Pedro Akondiako ermitan, lehen Aginagako apaizak ematen zuen meza. "Konjurua" latinez egiten zuen. Gaur egun, Eibarko parrokiako Xabier abadeak ematen du meza eta erritua dena euskaraz. Eibarko abesbatzako emakume batzuk ere egon izan dira kantatzen.

## 10. San Pedro eguneko prestaketa-lanak

- **Erref**: ZUM-108/011
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:14:50. **Bukatu**: 00:16:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

**Laburpena**:
Goizean zehar egiten da San Pedro eguneko ospakizuna. Koinata eta bere familia joaten dira prestakizunetan laguntzera: dena garbitu, loreak moztu, mahai-zapiak garbitu eta lisatu, aulkiak jarri, hamaiketakoa prestatu... Hamaiketakoa Eibarko Udalak ordaintzen du.

## 11. San Pedro eguneko meza ermita kanpoan

- **Erref**: ZUM-108/012
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:16:57. **Bukatu**: 00:18:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

**Laburpena**:
Urte batean San Pedro eguneko meza ermita kanpoan eman zen. Dena nola prestatu zuten azaltzen du Mari Josek.

## 12. San Pedro Akondia ermitako serora

- **Erref**: ZUM-108/013
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:18:35. **Bukatu**: 00:21:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

**Laburpena**:
Amaginarrebarengandik eta koinatarengandik ikasi ditu Mari Josek serora-lanak zeintzuk diren. Garai batean, hamaiketakoa apaizari bakarrik ematen zitzaion eta bera hasi zen hurbiltzen zen jendearentzat ere ateratzen. Ordutik, Udalak ordaintzen ditu gastu horiek. Adin guztietako jendea hurbiltzen da urtero. Soinu-jotzailea ere egon da azkenengo urteetan.

## 13. San Pedro Akondia ermitako apaingarriak

- **Erref**: ZUM-108/014
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:21:21. **Bukatu**: 00:23:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

**Laburpena**:
Meza emango duen apaizak ekartzen ditu ermitara jaunartzea egiteko kopa, kandelak eta ganderailuak. Lehen, Aginagako serorak hango elizatik ekartzen zituen. Aspaldi eserleku luzeak zeuden, baina gaur egun Udalak eserlekuak igotzen ditu urtero.

## 14. Erramu bedeinkatuak eta San Juan sua

- **Erref**: ZUM-108/017
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:25:40. **Bukatu**: 00:29:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

**Laburpena**:
Erramu eguneko erramu bedeinkatuak, baratzean eta baserriko, kortako eta San Pedro Akondia ermitako atean jartzen ditu. San Joanetan, erramu guztiak eta urtean zehar ermitan egon diren loreak sutan erretzen dituzte eta lehen aititak orazio bat kantatzen zuen.

## 15. San Pedro Akondian erromeria

- **Erref**: ZUM-108/019
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:32:31. **Bukatu**: 00:33:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena**:
Usartzako erromeriak hasi aurretik, San Pedro Akondiako ermita inguruan egiten zirela kontatu izan diote Mari Joseri. Taberna ere ba omen zegoen.

## 16. San Pedro Akondia ermitako kanpaia

- **Erref**: ZUM-108/021
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:33:45. **Bukatu**: 00:36:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

**Laburpena**:
San Pedro Akondiako kanpaia jotzen du Mari Josek. Gerra denboran, kanpaia Astelena frontoira eraman zuten. San Pedro egunean eta bezpera egunetan, kanpaia jotzen du.

## 17. Andirao Eibarko baserritarren elkartea

- **Erref**: ZUM-108/022
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:36:10. **Bukatu**: 00:37:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

**Laburpena**:
Baserritarrek Arraten elkartea daukate eta bertan egiten dituzte bilerak. Andirao elkarteak baserritarren kezkak eta eskaerak Udalari helarazten dizkio.

## 18. San Pedro Akondiako mezak urteetan iraungo du

- **Erref**: ZUM-108/024
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:38:30. **Bukatu**: 00:40:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

**Laburpena**:
San Pedro Akondiako jai egunean jende asko biltzen denez, askok meza ermita kanpotik entzuten dute. Boluntario asko egoten da hamaiketakoan eta prestaketetan laguntzeko. Mari Josek dio bera bertan dagoen bitartean, ez dela ospakizunaren ohitura galduko.

## 19. San Pedro Akondia ermitako apaizak II

- **Erref**: ZUM-108/025
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:40:30. **Bukatu**: 00:42:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

**Laburpena**:
San Pedro Akondian, apaiz ezberdinak ezagutu ditu Mari Josek. Lehenengoa, Arrateko abade izan zen On Pedro izan zen. Apaizei hamaiketakoa ematen zaie. Mezako eskean lortzen den dirua, apaizak Mari Joseri ematen dio.

## 20. Uda partean iturburuak lehortzen dira

- **Erref**: ZUM-108/027
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:42:35. **Bukatu**: 00:44:25

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Natura » Meteorologia

**Laburpena**:
Akondia baserri inguruko iturburuak abuztu partean lehortu egiten dira. Lehen arazo larria zen. Pertsona bat joan zen urtean zehar ura non zegoen begiratzeko eta motoponpa bat jarri zuten bertan.

## 21. San Pedro Akondian maiatzeko loreak; kantak

- **Erref**: ZUM-108/029
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:44:37. **Bukatu**: 00:47:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

**Laburpena**:
Maiatzeko loreen orazioa kantatzen du Mari Josek. Loreak bizilagunari eskatzen dizkio. San Pedro egunean, Arrateko amaren kanta abesten da eta auzoko batek latinez ere abesteko ohitura dauka.

## 22. San Pedro Akondia ermita, mezak emateko baimendua

- **Erref**: ZUM-108/031
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:49:02. **Bukatu**: 00:52:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

**Laburpena**:
Ez dago ohiturarik San Pedro Akondiako ermitan eskaintzarik egiteko, baina bizilagun batek urtero kandela bat eramaten du, aldarean jartzeko. Argimutila, mahai-zapia, txilina eta atrila baserrian gordetzen dira. Aldarean zulo bat dago eta barruan dokumentu(ren) bat, ermitan mezak ematen direla baimentzen duena

## 23. San Pedro Akondia ermitan, lehen mezak bizkarrez

- **Erref**: ZUM-108/036
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:54:58. **Bukatu**: 00:56:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

**Laburpena**:
San Pedro ermita garai batean meza bizkarrez emateko zegoen prestatuta. Mari Josek aldarea jarri eta ohitura hori aldatu zuen

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2026-10-25*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com